

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Bertsolaritzaren genealogia subalternoak

LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Bertsolaritzaren genealogia subalternoak

Subaltern genealogies of *bertsolaritza* (Basque improvisational poetry)

LUZIA ALBERRO

Deustuko Unibertsitatea

luzia.alberro@deusto.es

K. JOSU BIJUESCA

Deustuko Unibertsitatea

josu.bijuesca@deusto.es

JASOA: 2019/07/31 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/09/02 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/09

Lan hau Deustuko Unibertsitateak onartu eta diruz lagundutako Euskal Gaiak ikerketa taldearen ikerketa-lerroan garatu da.

LABURPENA

Saiakera honek egungo bertsolaritzaren genealogia subalternoa arakatzeko hiru ardatzen arabera: hizkuntza eta kultura; literatura; eta generoa. Euskaldunak orokorrean eta bertsolariak bereziki alteritate gisa eraikitzeke joera erakusten du lehen parteak, bai estatuaren eremu intelektual hegemonikoaren aldetik, bai eremu horrekin bat egiten zuen euskaldun zenbaiten aldetik. Bigarrenak agerian uzten du biolentzia sinboliko eta epistemikoaren erabilera bertsolaritza literaturatik bereizten denean eta biak batera aztertzeke aldarriak biltzen ditu. Hirugarrenak emakume bertsolarien historikoki pairatu izan duten subalternitate bikoitzaz eta egun bizi duten egoeraz dihardu.

Gako-hitzak: bertsolaritza; subalternitate; isiltasuna; euskal literatura; emakume bertsolariak.

ABSTRACT

This essay tracks the subaltern genealogies of bertsolaritza (Basque improvisational poetry) from three perspectives: language and culture; literature; and gender. The first part shows the tendency to construct Basque speakers in general and *bertsolaris* (improvisational poets) in particular as alterity both by the hegemonic Spanish intellectual field and by some Basque people belonging to that field. The second part demonstrates the use of symbolic and epistemic violence when *bertsolaritza* is severed from literature, and gathers several claims in favor to analyze both, Basque literature and *bertsolaritza*, together. The third part deals with the double subalternity plight that women *bertsolaris* have historically suffered, and with the status they hold nowadays.

Keywords: *bertsolaritza* (Basque improvisational poetry); subalternity; silence; Basque literature; women *bertsolaris* (female improvisational poets).

1. Sarrera gisa: subalterno euskaldunak

Los hermanos Zubiaurre son vascos, sordomudos y pintores. Esto quiere decir que hay en ellos tres potencias de mutismo. Ser vasco es, sin más, una renuncia nativa a la expresión verbal. El misterioso pueblo vascongado posee un idioma elemental que apenas sirve para nombrar las cosas materiales, y es por completo inepto para expresar la fluencia fugitiva de la vida interior. Por otra parte, ¿no es la pintura complacencia en la mudez de las cosas y una divina organización de la taciturnidad? (Ortega y Gasset, 2004 [1920], 395. or.).

Hitz horien mendeurrena bete da 2020an. Ortega y Gassetek Zubiaurre anaien erakusketa-katalogorako idatzi zituen, Buenos Airesen eratu zen erakusketarako hain zuzen ere. Ortega y Gasseten idazkiaren arabera, erakusketa osatzen zuten lanetako bat Valentinen *Versolari* zen, baina *Versolaris* edo *Bersolaris* izena duten hiru koadroen arteko bat izango zen, eta hiru horien artean egun Buenos Airesen dagoena, beharbada¹. Bai horretan, bai Bilbokoan gizon bi ari dira bertsoan beste gizon eta emakume asko adi dituztela ondoan eta atzean.

Ortegaren arabera euskaldunek uko egin diote hizkuntz adierazpenari, mututasuna berezko ezaugarri balute bezala. Subalternoaren egoeraz hausnartu dutenen artean, Spivaki zor zaio teoriarik eraginkorrenetako bat. Haren arabera, subalternoaren ezaugarri bereizgarriena isiltasuna litzateke; izan ere, subalternoa da enuntziatorako posiziorik ez duena (Spivak, 2015), hitz egiteko *lekunegabea*, Larramendiren hitzaz esatearren.

Ortegaren idazkiak, ordea, kontraesan nabarmena erakusten du, *Bertsolariak* koadroari dagokionez behintzat. Izan ere, Zubiaurreren lanean agerikoa da bertsolariak bertsoak botatzen ari diren bitartean irudikatu direla, ingurukoak haiei adi daudela. Beraz, komunikazio-jarduera betea da pintoreak bere koadrori ekarri duena, bertsolarien ahoek zalantza izpirik gabe adierazten dutenez. Bertsoak entzuteko modurik ez izateko arrazoia pinturaren beraren ezintasuna da, eta ez pintura horretan ageri diren

¹ Bertsolarien gaiak obsesiboa dirudi Valetin Zubiaurrerentzat, hiru koadro eskaini baitzizkion gaiari, *Emakume bertsolariak* liburuaren egileek argitu dutenez (Lasarte, Alvarez, Ugalde, Lekue & Martinez, 2015, 47-48. or.): 1913koa, Madrilgo Reina Sofia museokoa (Esteban, 2019); 1916-1917 inguruan datatua, Bilboko Arte Eder Museokoa (Arce-diano, d. g.); eta 1919koa, Buenos Aireseko Arte Ederretako Museo Nazionalekoa.

pertsonena, are gutxiago bertsolariena. Ortegari, ostera, berdin dio horrek guztiak. Euskaldunei eta euren hizkuntzari buruz duen aurreiritzia hain du errotua eta sendoa, ezen begi-bistakoena ere ez duen ikusten. Ortegarantz euskaldunak alteritate erradikala dira eta Zubiaurreren lanak alteritate horren ikurrik nabarmenena; hortik bere itsukeria, bertsolariak garatzen ari diren hizkuntzaren bidezko komunikazio-ekintza bera ikustea eragozten diona. Bertsolaritzaren ezagutzaile aparta izanik, Mitxelenak ezin izan zuen Ortegaren epaia, kapital sinbolikoaren jabetzak uzten zion biolentzia sinbolikoz bete, erantzun gabe utzi non eta Orixeren *Euskaldunak* poemaren berri eman zuenean:

La intimidación de estos [personajes] no se desborda en minuciosas descripciones, no porque el idioma vasco sea «por completo inepto para expresar la fluencia fugitiva de la vida interior», como pontificó en cierta ocasión Ortega sin mayor conocimiento de causa [...], sino porque un cierto recato –que, cuando se rompe, puede llevar al impudor exhibicionista de Unamuno– veda la expresión abierta de lo que es profundamente sentido. Por eso el poema de Orixe, fundamentalmente elíptico, es una obra maestra del arte de la alusión, tan apreciado por los oyentes de los bersolaris, que apunta con un breve ademán verbal lo que ni se debe ni es necesario exponer con menudo detalle (Mitxelena, 1960, 150. or.).

Mitxelenaren erantzun horretatik abiatuta, erantzun berria eman zion Ortegari Oteizak euskal arimaren interpretazio estetiko gisa aurkezturiko *Quousque tandem...!* liburu eraginkorrean². Ortegaren aurreiritzizko jarrera salatzearekin batera, Oteizak euskal artistengan berezkoa litzatekeen isiltasunaren balio estetikoa aldarrikatu du, zeinak bertsolariarengan aurkitzen duen gauzatze eredugarriena. Hona hemen Oteizaren beraren hitzak, liburu amaierako *Breve diccionario crítico* ataletik bilduak:

Lo que nuestros pintores y poetas (aunque intelectualmente no acierten a ser grandes) revelan popularmente siempre [es] una particularidad estética que constituye su verdadera grandeza: el silencio de una subjetividad natural que prueba que nuestra tradición nos viene de una evolución lograda enteramente en la evolución de los cambios de voluntad expresiva que otros pueblos no han sabido concluir [...]. Lo mismo si pensamos en la poesía de Orixe como en la pintura de los Zubiaurre. Es el sentimiento que desde la tradición culta dicta y mueve el estilo popular de nuestro bertsolari. Estilo de hombre sumergido en la corriente temporal de su memoria (temporal y fugitiva), tocando levemente (aludiendo) suficientemente, las cosas en las que no puede (espacialmente, clásicamente) detenerse, porque su estilo fugitivo es para tocar sin detenerse (Oteiza, 1973, «Ortega y Gasset» ahotsetik hartua).

Oteizaren ustez, isiltasuna bilakabide estetikoaren azken urratsa eta une gorena litzateke, berak cromlechean gauzaturik aurkitzen duena (Oteiza, 1973, 113. or.). Euskal arimaren ordezkari nagusi, bertsoak botatzean adina adierazten omen du mutu geldia-

² Joseba Gabilondori eskerrak eman beharrean gaude Oteizak honetaz guztiaz hausnartu zuela iradoki digulako.

-tzean ere bertsolariak (Oteiza, 1973, 139. or.). Ezaguna denez, Oteizak cromlecharen isil-tasunezko hutsunean aurkitu zuen arte garaikidearen aurkikuntza gorentzat zeukan hutsunearen eredia. Edozein dela Oteizaren iritzi estetikoek egiten dugun epaia, argi dagoena da Ortegarenak nagusikeriatik sortuak direla, subjektu hegemoniko espainiar-rrak bere posizioa bermatzeko behar duen bestearekiko jarreratik. Hala ere, Oteizaren aldarrikapenak ezin du estali euskal kulturaren bertan bertsolariak izan duen egoera subalternoa. Horretan bat egiten dute Oteizak eta Ortegak.

Ortega y Gasset, azken batean, bere garaiko burgesia espainiar hegemonikoaren intelektual organikoa da eta euskaldunekiko epaiak posizio horretatik egindakoak dira. Kontraesanak kontraesan (eta gorago aipaturiko hori ez da bakarra), bada Ortegaren testuan ondo esandakorik ere. Filosofo espainiarra zuzen egon liteke Zubiaurre anaien lanetan kutsu umoretsua aurkitzen duela dioenean:

[...] la técnica de estos dos artistas va regida por un instinto humorístico, en el mejor sentido del adjetivo. [...] Si el artista insiste en el dintorno de nuestro cuerpo, quedará este graciosamente acusado, extremado, exacerbado. De aquí proviene el zigzaguo humorístico que corre por los cuadros de estos hermanos (Ortega y Gasset, 2004, 397. or.).

Ortegak antzemandako kutsu umoretsu hori Zubiaurre anaien lanei askotan darian ezaugarria da, pintura *vasquista* delakoari gertatu ohi zaion bezala. Izan ere pintura horretan ohikoa da euskaldunak distantziaz, umorez, gehiegikeriaz irudikatuak izatea, bai haien itxurari dagokionez, bai garatzen dituzten ekintzen aldetik, zeinek arrotzatsuna adierazten dioten ikusle modernoari beste aldi batekoak diren eliz ospakizun, jai edota ohitura berezi eta sarritan zaharkituztat jotzen direnak aurkitzen dituenean. Ortegak atzematen ditu Zubiaurre anaien koadroetan ageri diren euskaldunak Italian XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran literatura erregionalistaren idazleek herria irudikatzen zuten bezala: «[...] la literatura regional ha sido esencialmente folklorista y pintoresca: el pueblo “regional” era visto “paternalistamente”, desde fuera, con espíritu desencantado, cosmopolita, de turistas en busca de sensaciones fuertes y originales por su crudeza» (Gramsci, 2000, 37. or.).

Ortega ez bezala, Zubiaurre anaiak euskaldunak ziren, aldikada luzeak Madrilen ematen zituzten arren, aita musikariaren lanak eraginda. Aldi berean arrakasta lortu zuten bai estatuan eta bai nazioartean ere. Anaia biek *cursus honorum* eredugarria garatu zuten, hau da, gizarte-talde hegemonikoen erabateko onarpena izan zuten: pinturaren eremu artistikoan sari ugari lortu zituzten, eta eremu horretatik kanpo ere arrakasta komertziala izan zuten. Lekuan lekuko jende xehearen irudikapenak gairik ohikoenetakoak zituzten, ez soilik euskaldunak, ezpada Gaztelakoak edota atzerrian bisitatu zituzten herrialdeetakoak ere bai. Ortegak adierazi bezala, gizarte-maila apaleko pertsonaiak arrotzasunez, kutsu exotikoz, umorez irudikatu zituzten euren mihiseetan. Maila apaleko pertsonaia horiek, subjektu baino gehiago, errepresentazio-objektu ziren; subalternoak, alegia. Agian horrek azaltzen du Ramonek Holandan 1912-1913 urteetan egindako zenbait koadro 1914an Pariseko *Société des Peintres Orientalistes Françaises* erakundeak antolatutako XXII. Erakusketa aldian onartuak izana (Barón, 2018a, 2018b).

Eurak euskaldunak izanik, baserritar eta arrantzale euskaldunak, bertsolariak barne, modu berean irudikatzen zituzten.

Jarrera horrek adierazten duena barne-zatiketa bezalako bat da, nor bere buruari kanpokoaren begiekien begiratzea. *Kontzientzia bikoitza* deritzon jarrera hori euskal literaturara hurbiltzeko zein era egokia izan daitekeen Gabilondok erakutsi du erreialismo magikoari atxikiriko XX. mende amaierako euskal literatura aztertzean (Gabilondo, 2006, 47. or.). Orain gogora ekartzeko arrazoia honako hau da: bertsolaritzaren egoera subalternoa azaltzeko beste ikuspegi teoriko batez baliatzea. Izan ere, euskaldunen praktika kulturalak balio hegemonikoen arabera epaitu direnean, kultura jasoaren irizpideen arabera, alegia, bertsolaritza literaturarekin lotu eta aldi berean goi-literaturaren eskakizunetatik zein urrun dagoen azpimarratu izan da.

Hortaz, bertsolaritzaren egoera subalternoa ulertzeko bi ildo teoriko behintzat baditugu. Lehenak, bertsolaritza isiltasunarekin lotzea eskatzen duenak, zer oztopo duen agerian gelditu da. Dena den, ez guke besterik gabe baztertu behar, bertsogintzak eremu isilarazirik izan ote duen arakatu baino lehen. Bigarren ildoaren arabera, bertsolariak egoera subalternora zokoratuko lituzkete ez soilik Ortegaraena bezalako euskal kulturari buruzko begirada arrotzek, baizik eta begirada horri txertaturiko kategoriak bere egin dituzten euskal kulturaren eremu hegemonikoek ere bai. Azken ildo hori ere eztabaidagarria izan liteke, baina emankorra ere bai bertsolaritzaren bilakabideaz eta euskal literaturarekin izan duen harremanaz hausnartzeko. Biak izango ditugu gogoan ondorengo lerroetan.

2. Bertsolaritza eta literatura

Egungo bertsolaritzak duen indarra ikusita, emango luke iragan sendoa izan duen kultur praktika dela, irmoki instituzionalizatua, babestua, zaindua. Bertsozale Elkartearen ekimenari esker hein handi batean, bertsolaritzak nolabaiteko zentraltasuna lortu du euskaldunen artean (Garzia, 2012, 10-19. or.). Hala ere, bertsolari-txapelketa batzuek lortzen duten oihartzun masiboak (bai ospakizun horiek erakartzen dituzten ikus-entzule kopuruari dagokionez eta bai komunikabide eta sare sozialetan jasotzen duten arretaren aldetik) inpresio faltsua sor lezake, ez soilik Euskal Herriko kultur kontsumo-ohiturak orokorrean aztertuko balira, ezpada (eta batez ere) bertsolaritzaren historiari dagokionez. Izan ere, bertsolaritzaren historia euskaldunen historiarekin txirikordatuta dago, hau da, egoera diglosikoan bizi den hizkuntza baten historiarekin eta berorren literaturarenarekin. Beraz, nekez uka daiteke historia hori talde subalternoen historia bat dela. Antonio Zavalari agerikoa egiten zitzaion bertsolaritzaren eta euskararen historien arteko harremana, eta bi horien egoera subalternoa, *subalterno* hitza erabili ez bazuen ere: «Yo diría que la vida del euskera ha venido siendo la historia de la deserción de los cultos y de la adhesión filial de las clases iletradas. Evitemos que su muerte vaya a ser la deserción de las masa iletradas, y de la a[d]hesión, tardía ya, de los cultos» (Zavala, 2000a, 42. or.).

Zuzenean edota zeharka, agian Antonio Zavala izan da bertsolaritzaren historiari ahalegin handienak eskaini dizkion ikertzailea. Gaia zuzenean landu zuen 1963ko

Bosquejo de historia del bersolarismo hitzaldi-bilduma eta liburuan (Zavala, 1964, 1996). Ohartzen zen orduan bere lana behin-behinekoa baino ezin zitekeela izan, asko baitzen oraindik ezagutzeko zegoena. Zeharka, bertsolaritzaren historiaren une eta egile ugari ezagutaraziz historia horren zenbait hutsune bete ditu, batez ere *Auspoa* saileko liburuen bitartez.

Deustuko Unibertsitateak 1999an *honoris causa* doktore-izendatzearen kariaz emandako hitzaldian atzera begiratzeko aukera izan zuen, bere lanaz kritikoki hausnartzeko. Orduan adierazitakoaren arabera, bildutako ahots apalen *sekretarioritza* gisa ulertzen zuen Zavalak bere egitekoa: «oien emaitzak illunpetik argira ateratzen aalegindu dana» (Zavala, 2000a, 35. or.). Ilunpea ez da isiltasuna, baina ilunpean dagoenak isiltasunean eta ahanzturan erortzeko arrisku handia dauka, subjektu subalternoari gerta dakiokkeen bezala. Guztiz jabetzen zen ahots galkor bat isiltasunerako patutik erauzten ari zela, ahots horri subjektu posizioa aitortuaz batera:

Yo no me he llegado al pueblo para observarle, estudiarle y redactar después mis impresiones. No he querido suplantarle y hablar yo, sino hacer que hablara él mismo. No he pretendido describirlo, sino que él mismo hiciera su autorretrato. No importaba mi voz, sino la suya. Siempre he pensado que esos hombres y mujeres eran mayores de edad (Zavala, 2000a, 44. or.).

Zavalak doktore-izendapenaren aukera baliatu zuen historia subalterno horren gako pare bat identifikatu eta bertsolaritzaren emaitzek historikoki pairatu duten etengabeko bazterketa azaltzeko. Lehenengo eta behin, honako aurreiritzi oker bezain sakonki errota: ez dagoela beste kulturarik liburuek biltzen dutena baino, gogoan eduki beharrean idatzi gabeko jakintza zabal eta askotarikoak izan daitezkeela, baina ezezagunak eta nork aurkituko zain dirautenak (Zavala, 2000a, 37. or.). Zavalak poza adierazten du odoluste horrekin amaitzeko egin duen ahaleginaz (Zavala, 2000a, 44. or.) eta, hala ere, bada emaitza horien multzo handi bat inoiz berreskuratu ezingo dena, ez eta haren historia ere, bat-bateko bertsolaritzari dagokiona, alegia. Joxerra Garziak azpimarratu du arazoaren neurria: bat-bateko bertsogintzaren berri ziurrak 1802. urtetik daude baina «[b]ertsolari inprobisatzaileen bertsoak sortzeko moduak eta azken produktua aztertzeko orduan, esan beharra dago XX. mendeko hirurogeiko hamarkadara arte ez dagoela behar besteko garrantzia daukan bat-bateko bertsoen corpusik» (Garzia, 2012, 44, 47. or.).

Hona hemen bigarren gakoa: herriaren ahotiko material horiek biltzen hasita, Zavalak auzitan jartzen ditu sailkapenerako erabilitako kategoriak, hala nola *folklore* hitza, ahozko literatura edo herri literatura. Aitzindari gisa ohoratzen ditu R. M. Azkue, Aita Donostia, J. M. Barandiaran eta M. Lekuona, baina bere buruari galdetzen dio ea zenbateraino hartzen den aintzakotzat haien lan itzela. Izan ere, kategoria hori kultuaren eta herrikoiaeren arteko bereizketan oinarritzen da, hau da, lehenak bigarrenarekiko ezartzen duen «distintzioan». Azken hori Zavalak berak erabilitako hitza da. Inork gutxik esango luke Zavala kulturaren teoria garaikideen zale zela, baina testuinguru honetan ezinbestekoa da *distintzio* hitza oihartzun bourdieuarrez entzutea, alegia, indar hegemonikoen araberrako kategorizazioaren salaketa gisa (Bourdieu, 2012). Sailkatze hori denok erori

garen «tranpa» izango litzateke, ez baitaude bi literatura, kultura bata eta herrikoia bestea, baizik eta bat eta bakarra, literatura soilik (Zavala, 2000a, 38, 40. or.). Zavalak zenbait orrialde eskaintzen dizkio bikoiztasun (*dualidad*) hori deseraikitzeari, denon eskutan dabilen «txanpoi faltsua» delakoan, argi ikusten baitu talde hegemonikoen ikuspegia baino ez duela eskaintzen (Zavala, 2000a, 38. or.).

Berriro ere Zavalaren hausnarketak ustekabeko (post)modernitate-txinpartak erakusten ditu. Izan ere, Zavalak identifikaturiko bikoiztasun horrek ez du eragozpenik eskaintzen estrukturalismoan eta postestrukturalismoan *binarismo* deitzen den horrekin parekatzeko. Derridaren arabera dekonstrukzioa Mendebaldeko tradizio filosofikoan ohiko diren oposizio binario hierarkikoen kontrako irakurketak eskaintzen saiatzen da. Alor ugartan aplikazioak izanik, binarismoa auzitan jartzeko saio horiek bereziki emankorrak izan dira Feminismoan (Culler, 1992) edota Postkolonialismoaren azterbideetan, besteak beste. Horien sofistikazio teorikoa bilatu gabe, Zavalaren hitzaldiak kultura jasoaren eta herri-kulturaren arteko bereizketak eta hierarkizazioak erakusten duen nagusikeria eta bidegabekeria azaleratzen ditu. Jokabide horren bitartez bat egiten du Kultura Azterbideen (*Cultural Studies*) helburu nagusietako batzuekin: lehenik eta behin, kultura jasoaren eta herri-kulturaren arteko hierarkizazioaren desegitearekin; eta horrekin batera, gizarte-maila apalekoen praktika eta adierazpide den herri-kultura arreta-gunean jartzearekin. Kultur maila bien arteko bereizketa horrek herri-literaturari orokorrean eta euskal bertsolaritzari bereziki ezartzen dion biolentzia sinbolikoaren eta epistemikoaren salaketa ozena dakar.

Alabaina, aldi berean, bertsolariekiko miresmen horrek badu esentzialismotik zerbait. Zavalaren ikuspegiaren arabera, bertsolariarengan gauzatuko litzateke subjektu euskaldun eredugarri eta benetakoena, subalternoa izanik ere. Eta hala ere, jarrera esentzialisten eskutik joan daitekeen arrazakeriak ez du aztarnarik utzi haren pentsamenduan. Aitzitik, multikulturalitatearen irizpideetatik hurbilago litzateke, *Auspoa* bilduman gaztelaniazko herri-prosaren lekukoei ere txoko bat eskaini eta haiekiko estimu bera erakutsi duenez gero (Zavala, 2000b).

Agian norbaitek iritziko dio Zavalari eskainitako tarte zabalegia dela (zilegi begigu hitz jokoa) bertsolaritzaz idatzi den guztirako. Alberrok laburtu ditu bertsolaritza aztertze orain arte erabili diren hurreratze-irizpide, helburu eta metodologia ugariak (Alberro, 2017, 70-97. or.), bertsolaritzaren arkeologiak, alegia. Bertsolaritza aztergai duen inork ez du ukatuko, ordea, Zavalaren lanarekiko dependentzia, batez ere bertso-paper, bertso jarri edota bertso berriei dagokienez. Diskurtso-mota horren artxibo ia osoaren bilketa, Bidasoatik honako Euskal Herriaz den bezainbatekoa behintzat, Zavalari zor zaio. Eta horrekin batera, bertsolaritzaren genealogia ulertzeko gakoak ere bai. Izan ere, bilketa-lan horri esker izan ez balitz, azterketa horiek guztiak ezinezkoak izango lirateke, artxiboa osatzen duten osagaietatik asko galduak izango liratekeelako eta, beharbada, artxiborik ere izango ez litzatekeelako; beraz, bertsolaritzaren arkeologia egiteko modurik ere ez. Zalantza gutxi, hortaz, genealogia hori subalternoa dela, egungo egoera bestelakoa izan daitekeen arren.

Globalizazioaren aldian «ikusentzutezkotasunak» duen garrantziari adituta eta euskal literatura garaikidean poesia-errezitaldien arrakasta ikusita, proposatu da «egun

poesia guztia ahozkoa dela, performantze bezala pentsatu behar dugula» (Gabilondo, 2009, 6. or.). Literatura eta poesia idatziaren eremuetan historikoki ahozkotasanak eta performantzeak izan duten toki ez beti ageriko baina eztabaida ezina arakatu ondoren, Gabilondok (2009, 9. or.) dikotomia horiek gainditzeko ordua dela aldarrikatu du.

Hortaz, performantzearen ikuspegitik poesia eta literaturarako hurbilketa horrek euskal literaturaren historia ere birpentsatzeko eta ohiko dikotomia horiek gainditzeko gonbidapena dakar. Ikuspegi berri horrek ondorio nabarmenak litzuzke euskal literaturaren historia osoan, eta bereziki XIX. mendeko Lore Jokoen inguruan sorturikoan. Giro horretan, «hau da lehenengo aldia non zazpi probintzietako subjektuak eta diskurtsoak bateratzen diren Euskal Herrian; eta beraz, literaturaren bidez, Euskal Herria bera performatzen da, errealitatera ekartzen, bere errealitate geo- eta biopolitikoan», Gabilondoren hitzetan. Antonio Zavalak aldi horretako bertso gintzaz eta bertso paperez bilduriko aztarnetan oinarriturik, honakoa litzateke azken ondorioa:

Gure literatura bere historikotasun konplexuan ulertuko badugu, ezin ditugu espek- tro beraren bi muturrak, idatzizkotasuna eta ahozkotasuna, kontrajarri eta sakabana- tu [...]. Izan ere batak ideologia fuerista-liberal ofizialak adierazten ditu eta besteak aitzitik «ideologia» subalterno heterogeneoago eta zatikatuago bat. Hala, biak elka- rren ondoan, elkarren talkan, irakurtzen baditugu, XIX. mendeko literaturaren be- netako historia izango dugu, historia bera, bere konplexutasunean azalduko diguna (Gabilondo, 2009, 18-19. or.).

Performantzearen ikuspegi horretatik, Gabilondok aldiz aldi bertsolaritzak izan duen bilakabidea aztertu eta beste kultura-adierazpenekin izan dituen harremanak arakatu ditu. Hortaz, soilik ahozkoa denaren (alegia, Ongen araberako *ahozkotasun primarioaren*) eta idatzizkoaren arteko bereizketak guztiz galduko luke zentzua gure aldian: egungo bertso- lariai gutxienez hezkuntza ertainerako ibilbidea egindakoak dira eta unibertitate-ikas- ketak dituztenak ere gehienak dira ziur asko. Horri euskal kulturaren bertsolaritzak hartu duen gune-tokia gehitzen badiogu, aldi bateko subalternitate-egoera gainditua dagoela ondorioztatu behar dugu, euskal kulturaren barnean behintzat.

Iratxe Retolazak ere herri-literaturak (eta, beraz, bertsolaritzak) literaturaren histo- rian izandako tokiaz hausnartu du. Nagusiki tradizio idatziaren kategorietan oinarrituta dauden euskal literaturaren historiak edota historia literarioak aztertu ondoren, honako ondorioa atera du:

[...] ahozko literatura hutsuneak betetzeko funtzioa duenean aipatu dela, hau da, ka- tebegi bat osatu behar denean. Literatura idatzirik eta libururik ez den garaian aitortu egin zaio ahozko kultura horri literariotasunik, baina, literatura idatzia eta liburuaren kultura agertzen den unetik, ukatu egin zaio literariotasun hori, eta ikuspegi histori- kotik at geratu da edozein ahozko ekarpen (Retolaza, 2010, 962. or.).

Ahozko literaturari historiografia literarioan eskainitako trataera hori eremu horren beraren egoera historikoki subalternoaren erakusgarri litzateke.

3. Emakumeak eta bertsolaritza: subalernitate bikoitza

Berriro ere Valentin Zubiaurreren koadroetara itzuli behar dugu une batez. Izan ere, titulu bereko beste olio-pintura bat du, egun Madrileko Reina Sofia Museorearen funtsen artekoa. Interneteko fitxaren arabera, *Versolaris* deritzo bigarren honi eta 1913an datatua da, bestea baino hiru edo lau urte lehenago. Oraingoan, ordea, irudikatuak ez dira gizon bertsolariak, emakumeak baizik. Eta alteritate efektua Bilbokoan baino nabarmenagoa da. Itsas ertzekoa dirudien herri batean emakume bertsolariak koadroaren ezker-ekker aldean jarri dira, lehen planoan eserita dauden gizon eta emakume talde baten atzean, eta erdialdetik eskuinerako zati osoa beste gizon batzuek betetzen dute, horietatik zenbait zutik eta beste batzuk mahai baten inguruan eserita. Emakume gehienek beren genero-roleri atxikitako objektuak dauzkate eskuartearen: bertsolarien aurrean dauden emakumeak goruetan edo harilkatzen ari dira, haien ondoko neska gazteak eltze edo marmita bat du beso artean eta emakume bertsolariak eurek ere halako bana dute buru gainean bertsoan ari diren bitartean! Emakume bertsolariak, gainera, adinekoak dira, itxura batean eskuetako hartzak artrosiak jotakoak eta hortzak galdutakoak. Zubiaurre anaien kutsu umoretsua edo kontzientzia bikoitzaren araberakoa, hortaz, Bilbokoan baino askoz nabarmenagoa da oraingo honetan. 1913ko bertsolarien koadroari atxikitako Interneteko fitxak alteritate-efektu hori zalantzarik gabe salatzen duen Barañano arte-adituaren epaia aipatzen du:

[...] no se lanza a la ruptura de los fauves ni del cubismo sino que compone iconos de la aldea perdida [...] como cuadros de devoción del pueblo llano elevado a estampa noble. Zubiaurre crea un naturalismo de lo que se pierde en el siglo XX, un viaje a oriente en el interior de la aldea vasca o castellana (Esteban, 2019).

Alteritate-efektua umorearen eta exotizazioaren bitartez bilatua litzateke hemen.

Esan bezala, emakume bertsolariari eskainiriko koadroa gizonei buruzkoa baino zaharragoa da eta hura bezain deigarria, are deigarriagoa ez bada. Eta hala ere, bai orokorrean eta bai euskal kulturaren alorrean ere askoz ezezagunagoa dela ematen du, emakume bertsolarien fenomeno historikoki izan den bezala. Subalernitatearen aztarna den isiltasun berak inguratzen ditu biak. Spivaki zor zaio *emakume subalernoaren egoera subalerno bikoitzaren* nozio ezaguna, subjektu koloniala izateaz gain, generoaren araberako subalernitatea ere pairatzen duelako (Spivak, 2015). Bertsolaritza genealogia egitea subjektu subalerno baten genealogia egitea bada, halako bi da emakume bertsolarien genealogia egitea.

Bertsolaritza historiaren hasieratzat jotzen diren eresi- edo erosta-egileak, iturrien arabera, emakumeak ziren. Haien lekukotzak, XVI. mendean bildua izan zenerako, mende inguru zuen, baina iraganeko kontutzat jotzen zen. Milia Lasturkoaren ahizpak ez zuen ondorengorik nonbait Garibayk haren berri eman zuenerako. Hortik aurrera bertsolaritza eremuan jar daitezkeen berriak oso urriak dira XVIII. mendera arte, eta emakumeen ikusezintasuna are handiagoa izango da.

Kapitalismoaren garapenarekin lotuta legoke emakume bertsolarien isiltasuna, itxura guztien arabera, sorgin-ehiza dagoen bezala: «[o]rdena patriarkal berri bat eraikitzeko baliabidea izan zen orobat sorgin-ehiza, emakumeen gorputza, lana eta sexu eta erre-

produkzio ahalmenak estatuaren kontrolpean jartzeko eta baliabide ekonomiko bihurtzeko» (Federici, 2017, 290. or.). Aro Moderno goiztiarra orokorrean diziplinatze-aldi latza izan bada, are latzagoa izan da emakumeentzat. Testuinguru horretan zentzu oso hartzen du Bizkaiko Foru Zaharrak emakumeei eresiak egiteko ezarri zien debekuak eta are gehiago inoren kontrako kantuak botatzekoak, *gaizkiesaleak* (horixe esan nahi baitu *profazada* hitzak) zirelakoan (Azurmendi, 1980, 147-148. or.). Lehenak emakume aristokratikoekin parekatzen ditu Azurmendik, bigarrenak prostituzioan ere murgil zitezkeen gizarte-eremu baztertuekin. Erreprodukzio-zereginetara bultzatuta, soldatapeko produkzioaren alorretik eta orokorrean alor publikotik emakumeak desagerrarazteko indarra handia izan da kapitalismoaren eta estatu modernoaren garapen-aldi osoan, edozein dela haien klase soziala.

Hori guztia gertatzen da euskararen egoera diglosikoa egonkortzen ari den bitartean. Egoera ahul hori irudikatzeke modu adierazgarrienetakoa euskara emakume zahar batekin parekatzen zuena da. Irudi hori eskaini zigun Etxabe apologistak, apologista ia guztiek bezala gaztelaniaz idatzi zuenak euskara goratzeko. Estatu hizkuntzek bizi duten gorakadaren aurrean (eta ez dezagun ahantz hizkuntza inperioaren kidea dela, Nebrijak aldarrikatu bezala), euskara sinbolikoki feminizaturik irudikatzen da Aro Moderno goiztiarrean (Gabilondo, 2013, 619-620. or.).

Bertsolaritzari buruzko berriak asko urritzen diren aldi horretan paradoxikoa bezain logikoa da emakume bertsolariei buruzko aztarnak murriztu izana, harik eta XIX. mendean berriro ugaritzen hasiko diren arte. Mende horretatik aurrera, ostera, emakume bertsolari eta bertso jartzaileen berri ziurrak daude. Berri horiek berreskuratu eta aztertzeke lana azken belaunaldiotako emakumeei zor zaie nagusiki, Feminismoa dutela bidelagun.

2014an Asteasuko emakume batzuen bertso iraingarrien bilduma bat aurkitu zen (Piá & Irixoa, 2015). Carmen Larrañagak ere historia horren pasarte gogoangarri ugari berreraiki ditu (Larrañaga, 1995, 1997, 2000). Larrañagak berak nabarmendu du bertsolariak gizonekin ia berez lotzeko dugun joera, *plazagizon* esapideak adierazten duen bezala (Larrañaga, 2000, 399. or.). Ildo berekoa da «Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea» izenburudun artikulua (Hernández, 2006/2007). Mugarri bat jarri du Emakunderen babespean garaturiko *Emakume bertsolariak. Ahanzturatik diskurtso propiora* azterketa lan mardulak (Lasarte *et al.*, 2015), zeinak *plazandrea* aldarrikatu eta emakume bertsolarien ahalduntzea azpimarratu duen. Liburu horren egileen artean dagoen Ana Isabel Ugaldek emakume bertsolarien historia berreraiki du «Antzinako Erregimeneko emakume bertsolariak» deritzon hitzaldian (Izaga, 2017). 2018ko ekainean Udako Euskal Unibertsitateak «Bertsolaritza Genero ikuspegitik» ikastaroa antolatu zuen (Udako Euskal Unibertsitatea, 2019). Ikastaro horren emaitzak *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsetzen* liburuak jaso ditu (Arteixe & Labaka, 2019). *Bertsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik* izeneko poster-infografia egin dute Ainhoa Agirreazaldegi, Uxue Alberdi, Miren Artetxe eta Ane Labaka bertsolariek, eta Txakur Gorria kolektiboko Malen Amenabar eta Mariñe Arbeok (Agirreazaldegi *et al.*, 2019). Iaz Elkon egindako beste ikastaro batean oinarriturik, beste argitalpen bat iragarri da berriki, ingelesez oraingoan: *Female improvisational poets. Challenges and achievements in the twentieth century*, oraindik ikusteko auke-

rarik izan ez duguna (Garate, 2019). Halaber, *Bertsolari* aldizkariaren 114. zenbakia gai beroni eskainitako ale monografikoa da: «Bertsolaritzaren genealogia feministak berrogeiko txikian» (Hainbaten artean, 2019). Genealogia horretan emakumezkoen bertsolaritzaren ustezko (usteak ustel, baina!) isiltasunari berri historiko garrantzitsu ugari erauzi zaizkio.

Ez dago zalantzarik gaia arreta itzela erakartzen ari dela, bai eremu akademikoan eta bai euskalgintzarenean ere. Bertsolaritzaren kasuan bezala, emango luke emakume bertsolarienean ere historikoki subalternoa izan den egoera hori gainditzeko zorian dagoela. Hala ere, egun emakume bertsolari direnek oraindik aurkitzen dituzten oztipoen kontzientzia dute. Horien berri bildu ditu Uxue Alberdik *Kontrako eztarritik* liburuan. Liburuak «emakumeen bertsolaritza azpiratzeko mekanismoetan errepikatzen diren patroiak bistaratuko» dituen tresna analitikoa izan nahi du, bai eta «bertsolaritzaren definizio tradizionala zabaltzen eta osatzen lagundu» (Alberdi, 2018, 17-18. or.). Hamabost emakume bertsolari egindako elkarrizketetan oinarrituz, hogeita bi mugatze-mekanismo identifikatu ditu. Horrekin batera, emakume bertsolariak ugaritu diren eta emakume batek txapel nagusia irabazi duen une honetan, Maialen Lujanbiok eta Miren Amurizak erakutsi dute emakume bertsolariak diren baino gehiago direlako pertzepzio okerra dagoela, emakume bertsolariak markatuak daudelako eta horregatik «asko okupatzen» dutelako, gizonak neutrotzat jotzen diren bitartean; izan ere, plazetan dabiltzan bertsolarien % 20 soilik dira emakumeak eta bertsolari guztien zerrendan % 25 (Rubio, 2019, 78. or.). Adierazpen horiek *Jakin* aldizkariak «Bertsoari neurria hartzen» gaiari eskainiriko 2019ko martxo-apirileko zenbakian egin dituzte. Eta zenbaki berean Jone Miren Hernandezek azken urteotako emakume bertsolarien presentzia nabarmenaz ere zalantzak agertu ditu profazaden debekutik bertsolaritza emakumeen hutsunearekin garatu delako, hutsune hori bertsolaritzaren parte izateraino. Azken batean bertsolaritzaren beraren definizioa legoke jokoan:

Kasualitatez-edo, gizon bezala izendatutako bertsolariak izan dira bakarrik bertsolariak. Printzipioz, gorputzez eta hitzez neutroak. Artistak, sortzaileak, (herri) jenioak. Baina, finean, ilargiak erakusten digun aldearekin gertatzen den moduan, argitan dagoenak alde iluna ezkuta dezake, hura ere jada ilargiaren parte dena. Ala ez? (Hernández, 2019, 54-55. or.).

Era batera edo bestera, bertsolaritzak emakumeen nahietara egokitzeko gaitasuna izan ala emakumeek egiten dutena bertsolaritza ez den beste zerbait izan, *eztarria*, *ahotsa*, *diskurtsoa* etengabeko aipamenak dira lan horietako askotan, subalternoko bikoitzaren isiltasunaldi luzearen ondoren hitza izateko borondatearen adierazle irmo.

Erreferentziak

Agirreazaldegia, A., Alberdi, U., Amenabar, M., Arbeo, M., Artetxe, M. & Labaka, A. (2019). *Bertsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik*. Donostia: Argia-Berria-Jakin-Lanku.

- Alberdi, U. (2019). *Kontrako eztarritik. Emakume bertsolarien testigantzak*. Zarautz: Susa.
- Alberro, L. (2017). *Bertsolarien ahoz. Modernizazio prozesua eta identitate bideak Gipuzkoan, 1930-1936*. Bilbo: UPV/EHU.
- Arcediano, S. (d. g.). Bertsolariak. *Bilboko Arte Ederren Museoa*. <https://www.museobilbao.com/eu/obras-comentadas/zubiaurre-valentin-de-116-helbidetik-eskuratua>.
- Artetxe, M. & Labaka, A. (2019). *Bertsolaritza feminisotik (bir)pentsatzen*. Bilbo: UEU.
- Azurmendi, J. (1980). Bertsolaritzaren estudiorako. *Jakin*, 14/15, 139-164.
- Barón, J. (2018a). Valentín de Zubiaurre Aguirrezábal. In Real Academia de la Historia (arg.), *Diccionario biográfico electrónico*. <http://dbe.rah.es/biografias/6688/valentin-de-zubiaurre-aguirrezabal-helbidetik-eskuratua>.
- Barón, J. (2018b). Ramón de Zubiaurre Aguirrezábal. In Real Academia de la Historia (arg.), *Diccionario biográfico electrónico*. <http://dbe.rah.es/biografias/6685/ramon-de-zubiaurre-aguirrezabal-helbidetik-eskuratua>.
- Bourdieu, P. (2012). *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*. Madril: Taurus.
- Culler, J. (1992). *Sobre la deconstrucción*. Madril: Cátedra.
- Esteban, P. (2019). Versolaris. *Museo Nacional de Arte Reina Sofía*. <https://www.museoreinasofia.es/coleccion/obra/versolaris-helbidetik-eskuratua>.
- Federici, S. (2017). *Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa*. Donostia-Andoain: Elkar-Jakin.
- Gabilondo, J. (2006). *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: UPV/EHU.
- Gabilondo, J. (2009). Euskal poesiaren historia postmoderno baterantz: ahozkotatasunaz eta performantzeaz (Gerra karlistetako bertso paperetatik rock erradikalera eta K. Uriberen poesiara). *Egan*, 3-4, 5-52.
- Gabilondo, J. (2013). Literatur historia postnazionala: Mende-genero-belaunaldi-auto-re zatiketaren ideologia filologiko hilaren ondoko historiografiaz. *Euskera*, 58(2), 609-627.
- Garate, M. (2019ko ekainaren 27a). Lorpen hirukoitz baten analisía. Nevadako Unibertsitateak emakume bertsolarien bizipenak bildu ditu liburu batean, ingelesez. *Berría*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1893/030/001/2019-06-27/lorpen-hiru-koitz-baten-analisisa.htm> helbidetik eskuratua.
- Garzia, J. (2012). *Bertsolaritza / El bersolarismo / Bertsolaritza*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Gramsci, A. (2000). Al margen de la historia (Historia de los grupos sociales subalternos). *Cuadernos de la cárcel* (VI, 173-187. or.). Puebla: Universidad Autónoma de Puebla.
- Hainbaten artean. (2019). *Bertsolaritzaren genealogia feministak berrogeiko txikian. Bertsolari*, 114. Andoain: Bertsozaleak Kultur Elkartea. <http://www.bertsolari.eus/aldizkariak/bertsolaritzaren-genealogia-feministak-berrogeiko-txikian/> helbidetik eskuratua.

- Hernández, J. M. (2006/2007). Emakume bertsolariak: ahozkatu [sic] gabeko identitatea. *Kobie (Antropologia cultural)*, XII, 61-70.
- Hernández, J. M. (2019). Hutsuneak du hitza. *Jakin*, 231, 39-57.
- Izaga, X. (2017ko maiatzaren 20a). Emakume bertsolariak, historiatic ezabatuak inolako azalpenik gabe? *Naiz*. https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2017-05-20-07-00/hemeroteca_articles/emakume-bertsolariak-historia-tik-ezabatuak-inolako-azalpenik-gabe-helbidetik-eskuratua.
- Larrañaga, C. (1995). El bertsolarismo: una tradición oral transitada por el género-sexo. *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, 23, 405-425. <http://www.eusko-media.org/PDFAnlt/vasconia/vas23/23405425.pdf> helbidetik eskuratua.
- Larrañaga, C. (1997). Del bersolarismo silenciado. *Jentilbaratz*, 6, 57-73. <http://www.euskonews.eus/0007zbk/berso.pdf> helbidetik berreskuratua.
- Larrañaga, C. (2000). Teatralidad y poética alternativas: el bersolarismo y las mujeres. In I. M. Zabala (arg.), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)* (VI, 399-424. or.). Barcelona: Anthropos.
- Lasarte, G., Alvarez, A., Ugalde, A. I., Lekue, P. & Martinez, J. (2015). *Emakume bertsolariak. Ahanzturatik diskurtso propiora*. Gasteiz: Emakunde. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/eu_def/adjuntos/beca.2015.2.emakume_bertsolariak.pdf helbidetik eskuratua.
- Mitxelena, K. (1960). *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro.
- Ortega y Gasset, J. (2004 [1920]). Los hermanos Zubiaurre. In Fundación José Ortega y Gasset (arg.), *Obras completas* (II, 395.-398. or.). Madril: Santillana-Fundación José Ortega y Gasset.
- Oteiza, J. (1973). *Quousque Tandem...!: ensayo de interpretación estética del alma vasca: su origen en el cromlech neolítico y su restablecimiento por el arte contemporáneo: [con breve diccionario crítico comparado del arte prehistórico y el arte actual]*. Donostia: Auñamendi.
- Piá, A. & Irixa, I. (2015). Asteasuko emakume bertsolariak XIX. mende hasieran. *Egan*, 1-2, 311-316.
- Retolaza, I. (2010). Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idazleak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta. *Euskera*, 55(2), 953-976.
- Rubio, M. (2019). Bertsoari neurria hartzen. Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio. *Jakin*, 231, 59-95.
- Spivak, G. C. (2015). Can the Subaltern Speak? In P. Williams & L. Chrisman (arg.), *Colonial discourse and post-colonial theory. A reader* (66-111. or.). New York: Columbia University Press.
- Udako Euskal Unibertsitatea. (2019). *Bertsolaritza genero ikuspegitik*. <http://www.ueu.eus/ikasi/udako-ikastaroa/1141/Bertsolaritza%2BGenero%2Bikuspegitik> helbidetik eskuratua.
- Zavala, A. (1964). *Bosquejo de historia del bersolarismo*. Zarautz: Auñamendi.

- Zavala, A. (1996). *Auspoaren auspoa (1. liburukia)*. Oiartzun: Sendoa.
- Zavala, A. (2000a). Doktore berriaren hitzaldia *Honoris causa* doktore izendapenean. In *Antonio Zavalaren ohoretan. Herri literaturaz gogoeta* (31-46. or.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Zavala, A. (2000b). Burua atzera jiratu edo liburu sail baten gorabeerak eta gozo-mikatzak. In *Antonio Zavalaren ohoretan. Herri literaturaz gogoeta* (113-126. or.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613